



ERAKUSKETA

Argazkiak ikusgai, atzotik Biterin

Hernaniko Argazki forum taldeak, argazki erakusketa jarri du Biterin, eta hiru astez egongo da ikusgai, abenduaren 1era arte. Astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara eta 17:30etatik 21:00etara ikusi eta erosi daitezke argazkiak; eta larunbatetan, 10:00etatik 13:00etara. Bertan 18 bazkide-argazkiak ikusi daitezke eta horietatik 13 Hernaniko argazki-lariak ateratakoak dira. Beste bostak inguruko heritakoena. ||

MENDIRIZ MENDI

Mendizale Asteak ez du etenik

Gaur 'La Isla Pirineos Pyrenaica' igelari buruzko dokumentala emango da lehen aldiz Euskadin; bihar Ander Olaizolaren 'Esentzia' liburua aurkeztuko da eta ostegunean 'Annapurna 2014' proiektatuko da.

URTERO Mendiriz Mendik antolatzen duen Mendizale Astea atzo hasi zen Biterin Nagore Legarreta eta Aritz Arrondoren *Nepal-India* hitzaldiarekin. Asteazkenean zehar jarraituko du eta gaur Aranzadi Zientzia Elkartearen *La Isla Pirineos-L'Île Pirénéennes* Pyrenaica igelari buruzko dokumentala dago. Euskal Herrian lehen aldiz emango dena! Pirinioetako relikia.

Bihar, Ander Olaizolaren *Esentzia*, bere bigarren liburua aurkeztuko da. Bertan, Euskal Herrian zehar, bost urtez egin duen bidaiaren erakustea du. Bertako txoko eta animaliak erretratatu.

Ostegunean, Agustin Apalazaren *Annapurna 2014* proiektatuko da. Xabier Errorekin egindako trekkinga ikusiko da.



Julen Lekuona aurkezle lanetan, Aritz Arrondo eta Nagore Legarreta hitzaldiaren hasieran.

Ostiralean, umeen tartea
Ostiralean umeen tartea izango da. 18:00etan hasita, gaztetxoek irteeretako ar-

gazki bilduma berezia ikusi eta dominak banatuko dira. Segidan, XXXVIII. Argazki Digitalen Lehiaketako argaz-

kiak ikusi eta sariak banatuko dira. Proiektio guztiak, 19:30etan izango dira, Biterin Kultur Etxean. ||

BERTSOLARI TXAPELKETA

Aitor Mendiluze ere finaletik oso gertu

Finalurrekoetako lehen itzularen amaieran, bertso eskolako Lujanbio, Mendiluze, Gaztelumendi eta Laburu zazpi lehenengo postuetan ageri dira, Colina, Sarriegi eta Elortzarekin batera.

AITOR Mendiluzek lortu zituen, Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalurrekoetako lehen itzuliko azken saioan puntu gehien, 740,5 guztira, Durangon. Gainerako parte-hartzaileei dagokienez, 678,5 lortu zituen Miren Amurizak; 675 Jon Maiak; 671 Oihana Iguaranek; 648 Iñaki Apatategik; eta 639 Miren Artetxek.

Hala, finalurrekoetako bigarren itzulian aritzeko txar-

tela eskuratu du eta Iruñean jarraituko du txapelketan, abenduaren 2an. Hernaniko bertso eskolako denak sailkatu dira bigarren itzulira eta gainera finalera sartzeko aukera haundiak dituzte gehienek.

Denek dituzte aukerak
Mailaen Lujanbio eta Aitor Mendiluzek lehen bi postuetan amaitu dute. Beñat

Gaztelumendi seigarren dago eta Agin Laburu zazpigarren. Gogoratu, finalerako lehen zazpiak sailkatzen direla. Unai Agirrek 14garren amaitu du lehen itzulia, baina finalerako sailkapena ez da ezinezkoa hernaniarrentzat. Agin Laburuk 690 puntu ditu eta Unai Agirrek 667,5 puntu.

Beñat Gaztelumendik Amurrioren kantatuko du datorren igandean, azaroaren 19an,

Sustrai Colina, Jon Maia, Jon Martin, Nerea Ibarzabal eta Etxahun Lekuerekin; Maialen Lujanbio eta Agin Laburuk Donibane Lohitzunen azaroaren 26an, Igor Elortza, Jone Uria, Julio Soto eta Iñaki Apatategirekin. Aitor Mendiluze eta Unai Agirrek azken finalurrekoan, Iruñean, abenduaren 2an, Aitor Sarriegi, Miren Amuriza, Oihana Iguaran eta Alaia Martinekin. ||

GOIZ EGUZKI

Hitzaldiak gaur eta etzi, 17:00etan

Bi hitzaldi antolatu ditu Goiz Eguzki aste honetarako. Gaur izango da aurrenekoa, *Publizitatearen Trikimailuei* buruz ari-tuko dira. Bigarrena etzi izango da, *Elikadura eta Dietetikari* buruz hitz egingo dute. Biak egoitzan izango dira, 17:00etatik aurrera. ||

LOTERIA EAJ

Batzokian salgai asteazkenean

Gabonetako loteria salgai dauka EAJ alderdiak. Txirrita kaleko 8 zenbakiko solairuarteran, Batzokian, erosi daiteke asteazkenean, 18:00etatik 19:00etara. ||

LITERATURA

Egañaren nobela, gaur solasaldian

Andoni Egañaren *Pausoa noiz luzatu* nobelaren literatur solasaldia egingo da gaur, 19:30etan, Udal Liburutegian. Ane Mayozen gidatuta, euskeraz egingo da. ||

DOBERA ELKARTEA

Negulekuan izenematea

Negulekuak antolatu ditu aurturten ere Dobera Euskara Elkartek. Abenduaren 22tik urtarrilaren 5era izango dira eta izen emateko azken eguna abenduaren 15ean izango da, Dobera Elkartearen. ||



Obradore nagusia Akarregin
Akarregi poligonoa 14A-2
DENDA, KUTXAK ETA KAFETEGIA
Ordutegi: 5:30-14:30 / 16:00-20:00
Jalegunetan: 7:00-14:30

Denda herriko kaxkoan
Lizeaga kalea 4
OGIA ETA BOLLERIA AUKERAN
Ordutegi: 7:00-14:00 / 17:00-21:00
Jalegunetan: 7:00-14:00

Ogi egin berria
beti zure eskura



mikel armendariz
proiektu eta instalazio
elektrikoak
Tel. 649 846 422
HERNANI

Allianz 
ASEGURUAK

- bizitze -
- istripuak -
- ibilgailuak -
- etxeak -
- komertzioak -
- enereak -
- zidura zibila -
- finantz aseguruak -
- inbentzioak -

agustin ezponda irizar
agentzia

Nagusia, 13
Telf.: 943 55 73 28
Faxe: 943 33 57 71



Bihartik aurrera berriro ere zuekin.

TXIRRITA 15, BEHEA

TAXIAK: 943 550093 | **UDALTAINGOA:** 943 248900 | **DYA:** 943 464622 | **AUTOBUSAK:** Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korroa Goizueta-Hernani: 948 514037 | **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 943 203020 | **JOKALARI / ALKOHOLIKO ANONIMOAK:** 943 331103
/ **Egunez:** A. Etxebarria Andre kalea, 48 (Hernani) 943 551793 / **Gauetz:** Etxebeste Elkano, 9 (Hernani) 943 552087

EGURALDIA
GAUR Goizak aurrera egin ahala osterteak gero eta zabalagoak izango dira eta arratsaldeak eguzkitsua izango da denean, nahiz eta hotz egin. **Min.4° / Max.10°**
BIHAR Giro argia espero da, nahiz eta behe-lainoa izan goizean Eguzkitsua egongo da eta temperatura apur bat igoko da: maximoak 12-14°C iritsiko dira. **Min.3° / Max.14°** (euskaime)

BAKEGILEAK

Pariseko martxaren elkartasun afaria larunbatean, frontoian

Osteguna da afarirako tiketak erosteko azken eguna. 20 euroko menuan zizka-mizkak, marmitakoa, Adarragako postrea, kafea eta likoreak daude.

ABENDUAREN 9an Parisen egingo den manifestaziora joateko deia luzatu zuten Bakegileak (Bakearen Artisa-uak, Bagoaz eta Sare) ekimen berriak, duela astebete. *Denak Pariserat* lelopean antolatu da

euskal presoen egoeraren hobekuntza aldarrikatzeko asmoz eta martxaren elkartasun afaria larunbatean ospatuko da Hernanin, Kiroldegiko frontoian, 21:00etatik aurrera. Afarirako tiketak salgai

daude 20 euroan Rioja, Deportibo, Txili eta Garinen eta etzi, ostegunean, da erosteko azken eguna. Menua ondorengo da: Zizka-mizkak, marmitakoa, Adarragako postrea, kafea eta likoreak. ||

JABETZE ESKOLAK

Menopausiaren inguruko hitzaldia Amaia Vazquezek, Biterin etzi

Jabetze eskolen barruan ostegunean, 18:00etan hasiko da. Doan da eta bertan parte hartzeko izena eman behar da 943 33 70 17 zenbakian.

OSTEGUNEAN menopausiaren inguruko hitzaldia emango du Amaia Vazquezek, Biteri Kultur Etxean, 18:00etan, Emakumeentzako Jabetze Eskolaren barruan. Bertan parte hartzeko

izena eman behar da Udal Berdintasun Arloan 943 33 70 17 telefono zenbakian edo berdintasun@hernani.eus helbide elektronikoa. Hitzaldia doan da. Hitzaldiaren izena da,

Menopausia. Beste erronka bat gure bizitzetan. «Historikoki, edertasuna eta sexu erakargarritasuna galtzearekin lotuta egon da, eta oraindik ere asko hala ulertzen dute». ||

JASOTA BEZALA

✓ Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izena eta bi abizen, NAN edo EHNA erakustea eta telefonoa ✓ Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira ✓ Kronikak beste hizkuntzetan jasotako kartak euskeratzen ditu ✓ Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak, edo itzultzeko garaian izan daitezkeen gaizki ulertuak.

«No son ignorantes, son malos»

Bilbon, azaroaren 4an, manifestazioan, elkarrekin egin genuen bidea, lagun zahar batek eta biok (kaixo Mikel). Eurria zarra-zarra, bide guztian, atertu gabe. Biok guardasol handi baten aterpean. La Casilla irteeratik hasi eta Udaletxeraino, ordu eta erdiz, elkarrekin hitz egiteko monotema: Katalunia gora eta Katalunia behera, atertu gabe.

Bukatu da manifestazioa, bukatu dira diskurtsoak, atertu du, joan gara taberna batera, zerbezaz hidratatzeko eta pixa erreka botatzeko, eta hor jarraitzen dugu gure monotemarekin: Katalunia gora eta Katalunia behera, atertu gabe. Taberna, lepo, manifestazioko jendearekin. Barran, bezeroen kontzen-

trazioa. Oihu errepikatua: «zurito bat eta tortilla pintxo bat». Komuna zaintzen, ilara luze bat, autobus paradakoa baino luzeagoa. Tebistan, Altuna eta Olaizola azken tantoak jokatzen. Barra atzean, 5 zerbitzari (tardean nagusia), hara eta hona, bezeroen aldarrikapenak ase ezinik. Kaos hartan, lagun zaharrak eta biok segi eta segi gure monoteman: Katalunia gora, eta Katalunia behera, atertu gabe.

Halako batean, nagusiak, barra atzean ari zela, hor eman dio tregua bere lanari. Eta hemen non esaten digun bioi: «perdonen dos minutos». Bion pentsamendua: «orain zer ote du honek?». Eta segidan, «Yo estudié en Deusto con Mario Conde y con todos estos del PP.

Teníamos una asignatura de Derecho Internacional. Y el libro de texto era del Padre Obieta que habla del Derecho de Autodeterminación de los Pueblos. Había que aprenderlo para aprobar la asignatura. Y todos esos la aprobaron. Esos no son ignorantes. Son malos». Eta jarraitu egin zuen bere lanean, barra atzean. Orduantxe, Altunak 22garrena egin zuen. Jendeak, txaloak Altunari. Nik tabernariari joko nizkioke. Merezi zuen Hernanitik Bilbora joateak, taberna hartan sartzeko.

«Horiek ez dira ezjakinak Baizikan eta zikinak Tabernariak garbi utzi zitun Jende horren izkinak».

Jexux Eizagirre Portillo

ERRIGORA ZOZKETA

Bi produktu saski zozketan, Kronikak

Errigorako bi saski banatuko ditu irakurle eta bazkideen artean. Aurten ere jarri du martxan kanpaina Errigorak, *Herrilana* izenarekin. Nafarroa hegoaldeko uztaren produktuekin, saskiak osatu eta saltzen dituzte. Saski bat irakurleentzat izango da, eta bihar arte dago parte hartzeko aukera: azpiko rekortablea bete eta kronikaren bulegoan entregatu edo iruzkina egin albiste honi, interneten, web orrian. ||

ZOZKETA

Izena _____

Telefonoa _____

KAXKO ELKARTEA

Gaueko aisialdia eta atsedena, eztabaidagai

Martxoan antolatu nahi da eta instituzioak, bizilagun eta tabernariak daude gonbidatuta.

HERNANIKO Kaxko Elkartek biltzarra edo foroa antolatu nahi du martxorako 'atseden eskubidea eta gaueko aisialdiaren gozamenaren' inguruan eztabaidatzeko. Bertan, gaueko aisialdiak sortzen dituen arazoei, ahal den moduan, soluzioak eman eta arazoak murrizteko.

«Gaueko jende aglomerazioek, Hernanin, soinuak, ekintza bandalikoak, erasoak eta bizilagunen atsedeen eskubidea ez errespetatzea ekar-

tzen dute» diote Kaxko Elkartetik.

Martxoan antolatu nahi da biltzarra eta horretarako laguntza behar dute ideien aporazioarekin. Instituzio desberdinak ere gonbidatuko dituzte; arazo antzekoak dituzten udalak, Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritza, Arartekoa, Hernaniko Udala... baita alderdi politiko, bizilagun, tabernari eta ideiak ekartzen dituen oro. kaxkoelkartea.eus web orrian jarri daitezke kontaktuan. ||

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 20:00ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

I URTEURRENA

Jose txo Ormazabal Esteban

'Txetxo'

2016ko Azaroaren 15ean hil zen, 61 urterekin

Ez zaitugu ahaztuko

ETXEKOAK

Hernanin, 2017ko azaroaren 14ean

IRAGARKI MERKEAK

LOGIKALINE enpresak 4 lanpostu salmenta-puntuko komertzial lanerako. Eskatzen da gaztelania eta euskara edukitzea eta eskaintzen da formazio sendoa eta lan-talde egonkorra. Bidali c.v. rrhh@logikaline.com helbidera.

ETXEKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, persianak... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura... Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)